

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IDIAZABALGO UDALA

*Idiazabalgo Udaleko eraikinak garbitzeko hiru lanpostu betetzeko lan-kontratadun langile finko gisa kontratazea.*

2025eko azaroaren 7an Udal honetako Alkateak 2025/580 Alkate Dekretuan honako hau erabaki du:

*Lehenengoa.* Epaimahaiak egindako proposamena ikusita, Miren Nekane Aramburu Mugica, Maria Ascension Ulayar Maiza eta Vanessa Sanchez Caballero kontratatzea Idiazabalgo udaleko lan-kontratadun langile finko gisa udal eraikinak garbitzeko lan-posturako.

*Bigarrena.* Kontratazioak eragina izango du kontratua sinatzen duten egunetik hasita. Kontratua sinatzea erabakiaren jakinarazpena jaso eta hogeita hamar laneguneko epean egingo da.

*Hirugarrena.* Prozesua gainditu duten gainerako izangaiekin lan poltsa sortzea hurrenkeraren arabera.

*Laugarrena.* Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea. Era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udalaren webgunean argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Idiazabal, 2025eko azaroaren 7a.—Iñaki Alberdi Iparragirre, alkatea. (7772)

AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

*Contratación como personal laboral fijo para tres plazas de limpieza de edificios para el Ayuntamiento de Idiazabal.*

Con fecha 7 de noviembre de 2025 el Sr. Alcalde de este Ayuntamiento en el Decreto 2025/580 ha aprobado lo siguiente:

*Primera.* A la vista de la propuesta elevada por el Tribunal, contratar como personal laboral fijo del Ayuntamiento de Idiazabal a Miren Nekane Aramburu Mugica, Maria Ascension Ulayar Maiza y Vanessa Sanchez Caballero para desempeñar el puesto de limpieza de edificios.

*Segunda.* La contratación surtirá efecto desde la fecha de la firma del contrato. La firma del contrato se realizará en el plazo de treinta días hábiles desde la recepción de la notificación del acuerdo.

*Tercera.* Crear una bolsa de trabajo con el resto de aspirantes que han superado el proceso en orden a la puntuación obtenida.

*Cuarta.* Notificar la presente Resolución a los interesados. Asimismo, publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la web municipal.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán presentar recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Idiazabal, a 7 de noviembre de 2025.—El alcalde, Iñaki Alberdi Iparragirre. (7772)